



BIOSISTEMAK

**EUSKAL
OSASUN
IKERKUNTZA**

**INVESTIGACIÓN
VASCA
EN SALUD**

**BASQUE
HEALTH
RESEARCH**

MEMORIA ZIENTIFIKOA

2024




**PENTSATZEKO MODU BAT DA
ZIENTZIA, EZAGUTZA-GORPUTZ
BAT BAINO ASKOZ GEHIAGO.**

BARBARA MCCLINTOCK

MEDIKUNTZA EDO FISILOGIAKO 1983KO NOBEL SARIA

1. 2024ko mugarriak	4
2. Erakundea	7
2.1. Gure nortasuna	8
2.2. Organigrama	9
2.3. Egitura zientifikoa	11
2.4. Ikerketa-taldeak	12
3. Baliabideak	13
3.1. Giza baliabideak	14
3.2. Baliabide zientifiko-teknikoak	16
3.3. Baliabide ekonomikoak	17
4. I+G+b jarduera	19
4.1. Proiektuak	21
4.2. Sareak eta lankidetzak	37
4.3. Irakaskuntza- eta prestakuntza-jarduera	40
4.4. Komunikazioa eta hedapena	43
5. Emaitzak	50
5.1. Ekoizpen zientifikoa	51
5.2. Inpaktua Euskadiko Osasun Sistematan	54
6. Eranskina	55
6.1. Argitalpen zientifikoak	56
6.2. Harremanetarako	64



2024KO MUGARRIAK

2024an, **Biosistemak Institutua** sendotu egin da osasun-sistemen ikerketan erreferente gisa tokiko, estatuko eta nazioarteko mailan. Hala, lehiakortasun, kalitate eta iraunkortasun handiagoa eman dio **Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuari**, eta ezagutza berria eta balio sozial eta ekonomikoa sortzen eta aplikatzen lagundu du. Institutuaren ikerketa-jardueraren ardatza osasun-sistemaren eraldaketan aurrera egitea izan da, osasun-politika eta -zerbitzu, prozesu eta antolaketa-eredu berriak garatu, inplementatu eta ebaluatuta, sistemaren eraginkortasuna, ekitatea, efizientzia eta segurtasuna bultzatzea helburu.

Biosistemak Institutuko lantaldea osatzen duten 23 pertsonak, Osakidetzako osasun-profesionalen eta ikerketa-taldeei atxikitako langileen lankidetzarekin batera, erakutsi dute, beren jarduera eta ekoizpen zientifikoaren bidez, konpromisoa dutela berrikuntzarekin, bikaintasun zientifikoarekin eta balioan oinarritutako arreta ardatz duen osasun-sistema iraunkorrarekin. Hala erakusten dute Europa mailan **500 bazkide baino gehiagok** sortutako lankidetzak-sareak, 2024an zehar

Europako 10 proiektu baino gehiagotan parte hartzeak, nazioarteko erreferentziazko ekitaldi zientifikoetan dozenaka parte-hartzeek eta eragin handiko 62 argitalpen zientifikok.

Euskadiko osasun-sistemaren lehentasunekin bat etorritz, Biosistemak Institutuak, **Osasun Saileko Ikerketa, Berrikuntza eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzaren** eskutik, osasun-sisteman eta sistema soziosanitarioan eta osasun publikoaren eremuan aurrerapen esanguratsuak gidatu ditu, eta ezagutzaren transferentzian eta osasunaren arloko erronka premiazkoenei heltzen dieten proiektu estrategikoak garatzen lagundu du.

Biosistemak Institutuaren 2024ko Memoria Zientifikoaren helburua da urte honetan egindako ikerketa-jarduerak ezagutaraztea, baita emaitzak eta horien eragina ere.

- 1** **Europar Batasunak (EB)** aitortpena egin dio **JADECARE** Ekintza Bateratuaren esparruan Europako eskualde ezberdinetara transferitutako Osakidetzaren Arreta Integratuaren estrategiari.
- 2** **EU-JAMRAI 2** Ekintza Bateratuan parte hartzen hasi gara, **antimikrobianoekiko erresistentziaren** eta infekzioen prebentzio eta kontrolaren arloko ezaguta hedatzeko, eta inpaktuaren ebaluazioa gidazten dugu.
- 3** **Agintaritza Eskudun** izendatu gaituzte **Osasun Mentalari** buruzko **MENTOR** Ekintza Bateratuan; talde zaugarrientzako politika berritzaileak jorratzen ditu.
- 4** **EUCanScreen** Ekintza Bateratuan parte hartzen hasi gara, Europa mailan **baheketa onkologikoak** hobetzeko.
- 5** **Europako Parlamentuan** izan gara **JANE** proiektuaren amaierako ekitaldian, **minbiziari buruzko ezagutza-sareen sorrera**, eta Institutuaren nazioarteko ikusgarritasuna indartu da.

- 6** Biosistemak Institutuak Euskadi ordezkatu du **Osasunaren Mundu Erakundeak antolatutako 18. Baltikoko Elkarrizketa Politikoan**, lehen mailako arretaren eraldaketan zentratua.
- 7** **Euskadiko 2030erako Plan Onkologiko Integral** berria garatzeko ekarpen aktiboa egin da; minbiziari aurre egiteko ikuspegi integrala eta jasangarria du helburu.
- 8** **Balioan oinarritutako arreta-ibilbide integratuaren** hedapena koordinatu da **bihotz-gutxiegitasuna** duten pazienteentzat, Osakidetzako 13 Erakunde Sanitario Integratuekin (ESI) lankidetzan.
- 9** **ADLIFE** proiektu europarraren **amaierako konferentzia** ospatu zen Bilbon, gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten gaixoentzat **soluzio digitalek emandako arreta-plan pertsonalizatuak** bultzatzean zentratuta.
- 10** **UPV/EHUko Udako Ikastaroa** antolatu dugu **Osasunaren Ekonomia** gaiaren inguruan, eta osasun sektorearen erronka ekonomikoei buruzko eztabaida akademiko eta profesionala sustatu dugu.



ERAKUNDEA

2.1. Gure nortasuna

XEDEA

Bikaintasuneko ikerketa egitea osasun-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen antolaketan eta kudeaketan, ezagutza eta balio sozial eta ekonomikoa sortzea eta aplikatzea helburu.

IKUSPEGIA

Nazioartean ikerketa aplikatuko eta translazionalako erreferentziatzko Institutu bihurtzea, osasun-politika eta -zerbitzuak garatu, ezarri eta ebalua daitezen sustatzeko buru izanda.



BALIOAK



Goi-mailako zientzia



Konpromisoa, bokazioa eta pasioa



Ekitatea




Efizientzia



Jasangarritasuna eta malgutasuna



2.2. Organigrama



Biosistemak Institutuko aginte-organoak

BATZAR NAGUSIA

Batzar Nagusia Institutuaren borondatea adierazteko organo subiranoa da. Dagozkion eginkizunak exekutatzen ditu, ordenamendu juridikoan eta estatutu sozialetan xedatutakoaren arabera. Hauek osatzen dute:

- **Lehendakaria**
Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila
- **Lehendakariordea**
Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia
- **Idazkaria-diruzaina**
Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioa (BIOEF)
- **Batzordekidea**
Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetza

BATZORDE BETEARAZLEA

Gobernu-organo gisa dihardu, Batzar Nagusiak eskuordetuta. Berezko kideek eta izendapen askeko kideek osatzen dute. Hauek osatzen dute:

- **Ikerketa, Berrikuntza eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza**
- **Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza**
- **BIOEF - Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioaren I+G+b kudeatzeko Zuzendaritza**

2.3. Egitura zientifikoa – Ikerketa arloak

Ikerketa- eta berrikuntza-jarduera lau zehar-eremutan antolatzen da, zentro eta diziplina anitzekoak:

OSASUN ARLOKO POLITIKAK ETA POLITIKA SOZIOSANITARIOAK DISEINATZEA ETA EBALUATZEA



- Balioan oinarritutako arreta
- Osasun publikoko programak eta esku-hartzeak
- Ekonomia- eta aurrekontu-inpaktua
- Irisgarritasuna, ekitatea, eraginkortasuna eta efizientzia

ANTOLAMENDU- EREDUAK GARATZEA ETA EBALUATZEA



- Digitalizazioa eta garapen teknologikoak
- Ereduak eta ibilbide klinikoak garatzea
- Antolamendu-aldaketak inplementatzea

PROZESUAK ETA EMAITZAK ANALIZATZEA ETA EBALUATZEA



- Zerbitzuen erabilera, aldakortasuna eta egokitzapena
- Kalitatea, segurtasuna eta atxikimendua
- Emaitza klinikoak eta pazienteek hautemandakoak
- Efikazia, eraginkortasuna, kostuen analisisa

ERABAKIAK HARTZEN LAGUNTZEA



- Datuen modelizazioa eta analitika adimenduna
- Laguntza-tresnak
- Pazienteen araberako emaitzak eta herritarren ahalduntzea

2.4. Ikerketa-taldeak



OSASUN DIGITALA

IN: Dolores Verdoy Berastegui

Biosistemak Institutua



ASISTENTZIA-JARDUNARI BURUZKO DATUAK BERRERABILTZEA

IN: Eduardo Millán Ortuondo

Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza
Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia



OSASUN-ZERBITZUAK

IN: Iñigo Gorostiza Hormaetxe

Bilbo-Basurtu ESla



BALIOAN OINARRITUTAKO ARRETA

IN: Borja García Lorenzo

Biosistemak Institutua



INPLEMENTAZIOA

IN: Ane Fullaondo Zabala

Biosistemak Institutua



GAIXOTASUN KRONIKOETARAKO OSASUN- ZERBITZUAK

IN: Jose M^a Quintana López

Barrualde-Galdakao ESla



BALIABIDEAK

3.1. Giza baliabideak

Biosistemak Institutuak diziplina anitzeko lantalde bat du, bertako langileak eta hainbat erakundetako ikerketa-taldeei atxikitako ikertzaileak biltzen ditu. Erakunde horiek dira: Osakidetza, Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritza, Ikerketa, Berrikuntza eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza, eta Osasun Eraldaketa, Plangintza eta Digitalizazioko Zuzendaritza, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Basque Center for Applied Matics (BCAM), eta 13 Erakunde Sanitario Integratueta (ESI), azpiakutuen ospitaleetako, osasun mentaleko sareetako eta Osakidetzako larrialdietako profesionalek eta kudeatzaile sanitarioek osatutako talde kliniko elkartua.

Antolaketa-eredu horren bidez, ikerketa-proiektuei ikuspegi integral eta kolaboratiboarekin ekiten zaie.

BIOSISTEMAK INSTITUTUKO LANGILEAK



Institutuak **23 langile** ditu; % 83 emakumeak dira eta % 17 gizonak.

BIOSISTEMAK INSTITUTUARI ATXIKITAKO LANGILEAK



2024an, Ikerketa Taldeei atxikitako **38 langilek** jardun zuten Biosistemak Institutuan.

TALDE KLINIKO ELKARTUA



Osakidetzako 300 osasun-profesional inguruk parte hartu zuten Biosistemak Institutuak gidatutako ikerketa-proiektuetan 2024an. Proiektuen ikerketa-jardueretan parte hartu zutenak ESletakoak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailekoak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko beste erakunde batzuetakoak ziren.



3.2. Baliabide zientifiko-teknikoak

Biosistemak Institutuak hiru laguntza-plataforma ditu, ikerketa-proiektuak diseinatu, egikaritu eta hedatzen laguntzeko, eta proiektuen kalitatea, eraginkortasuna eta bikaintasuna ziurtatzeko. Plataforma horien bidez, I+G+b arloko alderdi espezifikoak jorratzen dira, hala berrikuntza eta osasun-sistema eta zerbitzuetan ezagutza hedatzeko.

PLATAFORMA METODOLOGIKOA


- Ikerketa, dokumentazio eta analisi estatistiko eta kualitatiboen diseinua eta garapena
- Emaitzen interpretazioa, aurkezpena eta hedapena
- Datuak analizatzeko metodologiak ditu, baita Big Data, Real World Data eta AA ikerketa- eta berrikuntza-helburuetarako erabiltzea ahalbidetzen duten gaitasun teknologikoak ere

DATUAREN PLATAFORMA

- Datu-base handiak garatzen ditu
- Osasun-arloko informazio-sistemak ustiatzen ditu
- Hainbat erregistrotako datuak eta informazioa ditu, datu-base klinikoak eta administratiboak, kohorteak edo bizitza errealeko datuak, eta ikerketa analizatzeko erabilgarri daude

PROIEKTUEN PLATAFORMA


- Joerak aztertzea eta Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoetako deialdiak berrikustea
- Osakidetzaren eta Osasun Sailaren beharrak, ekimenak eta proiektuak identifikatzea
- Proposamenak diseinatzea, aurrekontu-plangintza barne, eta Europako sareak eta aliantzak kudeatzea
- Proiektuak garatzen, egikaritzen eta idazten laguntzea eta koordinatzea
- Diseinu eta kudeaketarako metodologiak garatzea



3.3. Baliabide ekonomikoak

LEHIA BIDEZKO KANPOKO FINANTZIAZIO ITURRIAK

2024an, Biosistemak Institutuak haren finantziak indartu du, lehia bidezko kanpoko funtsen bidez. Aipatzekoak dira Europako Batzordearen eta Estatuko Administrazio Orokorraren ekarpenak.



BIOSISTEMAK INSTITUTUAREN GALDU-IRABAZIEN KONTUA

	2024	2023
Ekitaldiaren soberakina:		
Berezko jardueragatiko sarrerak		
Ekitaldiaren soberakinari egotzitako diru-laguntzak	1.784.738	1.935.386
Merkataritza jardueragatiko salmentak eta beste sarrerak/Zerbitzuen prestazioak	8.900)	-
Langileengatiko gastuak -		
Soldatak, lansariak eta baliokidetuak	(897.107)	(894.821)
Gizarte Kargak	(272.752)	(272.973)
	(1.711.015)	(1.167.794)
Jardueragatiko bestelako gastuak		
Kanpo zerbitzuak -	(603.085)	(748.808)
Ibilgetuaren amortizazioa	(6.123)	(7.673)
Ibilgetuaren besterentzeagatik gertatutako narriadura eta emaitza -	(12.078)	-
Beste emaitza batzuk -	6.954	-
	9.447	11.111
JARDUERAREN SOBERAKINA		
Finantza-sarrerak		
Balio negoziagarrietatik eta bestelako finantza-tresnetatik eratorritakoa-	19.520	-
Finantza-gastuak	(50)	-
	19.520	-
FINANTZA ERAGIKETEN SOBERAKINA		
SOBERAKINA, ZERGEN AURRETIK	28.917	11.111
Mozkinen gaineko zergak -	-	-
Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrera eta gastuengatiko ondare garbiaren aldaketak	28.917	11.111
GUZTIZKO EMAITZA, ONDARE GARBIAREN ALDAKETA, EKITALDIAN	28.917	11.111



I+G+b JARDUERA

Biosistemak Institutuak lidergoa sendotu du nazioarteko, estatuko eta tokiko osasun-sistemen ikerketan 2024an, eta aktiboki eta zeregin garrantzitsuarekin parte hartu du eragin handiko ikerketa-proiektuetan, osasun-sistemen egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko eta pertsoneri eskainitako arreta eta zerbitzuak hobetzeko, eraginkortasunaren, kalitatearen, ekitatearen, segurtasunaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik.



30
PROIEKTU AKTIBO
GUZTIRA



27
PROPOSAMEN
AURKEZTU DIRA



1.070.444 €
LEHIA BIDEZKO KANPOKO
FINANTZIAZIOA



EUROPAKO **10**
PROIEKTU ABIAN



EUROPAKO
500
BAZKIDE BAINO
GEHIAGOREKIN
LANKIDETZA



421
PERTSONEK PARTE
HARTU DUTE



ESTATUKO **4**
PROIEKTU



EUSKO
JAURLARITZAREN **16**
PROIEKTU

4.1. Proiektuak

4.1.1. Europako proiektuak

2024an, Biosistemak Institutuak modu aktiboan parte hartzen jarraitu duen **Osasunaren eta Digitalaren arloko Europako Agentzia Exekutiboak (HaDEA)** kudeatzen dituen Europako zenbait programatan. Programa horiek, **Horizon Europe** eta **EU4Health**en baitan, erakundeak Europa mailan ikerketa eta berrikuntzarekin duen etengabeko konpromisoaren adibide dira.

Institutuaren eta Europako erakundeen arteko lankidetzak are gehiago indartu da aurrean. **2011n sortu** zenetik, erakundeak loturak ezarri ditu **35 herrialde** baino gehiagotako **480 erakunde** baino gehiagorekin, eta **800 kolaborazio** baino gehiago egin ditu Europako proiektuetan, ikaskuntza-komunitateetan, lankidetzak sareetan eta beste ikerketa-ekimen batzuetan. Nazioarteko lankidetzak sare zabala hori funtsezkoa izan da proiektu berritzaileak aurrera eramateko eta osasunaren eta teknologiaren arloko ezagutzak partekatzeke.

EGINKIZUNAK

Europako koordinatzailea: proiektu-burua eta Europako Batzordearekin harreman-puntu gisa jarduten duen erakundea.

Estatuko koordinatzailea: Estatuaren izenean ekintza inplementatzeko agintaritzak eskudun gisa jarduten duen erakundea.

Bazkidea: proiektuan kolaboratu eta ekintzaren zati batzuk egikaritzen dituen entitatea.

European Partnership on Transforming Health and Care Systems

 Ikerketaren eta berrikuntzaren bidez, osasun- eta arreta-sistema iraunkorragoak eta pertsonak erdigunean.

 2023ko urtarrila – 2029ko urria

 300M €

 Europako osasun-ekosistemen artean jardunbide egokiak abiarazteko eta ezagutza-trukea sustatzeko esparru bat garatzea.

 **Bazkidea**



 Osasun Sailak, BIOEF Fundazioaren bidez, ikerketa-proiektuak finantzatzen ditu. Ikerketa-proiektu horien helburua da osasun sistemak iraunkorragoak, eraginkorragoak, erresilienteagoak eta kalitate handiko berritzaileagoak izatea sustatzea. Biosistemak Institutuak ezagutza eta tresnak eskaintzen ditu esparru metodologikoa eta ebaluazioa definitzeko, eta ezagutza-zentroaren sorreran parte hartzen du, Europako jardunbide onenak transferitzen laguntzeko.

Integrated Personalized Care for Patients with Advanced Chronic Diseases to Improve Health and Quality of life

 Gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten pazienteei arreta pertsonalizatua eta koordinatua ematea, banakako arreta-planen bidez, bizi-kalitatea hobetzeko eta narriaduraren detekzio goiztiarrerako.

 2020ko urtarrila - 2024ko azaroa

 7M €

 Osasun-zerbitzuetan eraginkortasuna hobetzea, inplementatzea, teknologia onartzea eta inpaktu sozioekonomikoa eragitea.

 **Europako koordinatzailea**



 ADLIFE tresna frogatu da Osakidetzan, gida klinikoetan oinarritutako arreta-plan pertsonalizatuak eta erabakiak elkarrekin hartzeko ereduak garatzeko, eta pazientearen ahalduntzea eta autonomia sustatzeko.

Joint Action on Networks of Expertise on Cancer



Minbiziari buruzko Europako ezagutza-sareak diseinatzea, aurretik dauden eredueta eta ikerketa-azpiegituretan oinarrituta.



2022ko urria -
 2024ko urria



4M €



Minbiziari buruzko zazpi ezagutza-sare diseinatzea, tratamendu aurreratuenak kostu txikiagoan ahalik eta paziente gehienen eskura jartzen lagunduko dutenak, ikerketa eta prestakuntza mediko espezializatua sustatuta.



Estatuko
 koordinatzailea



Minbiziaren tratamendu integrala hobetzeko ezagutza-sareak etorkizunean implementatzeko oztopoak eta erraztaileak aztertzea.

Joint Action on Networks of Expertise on Cancer



Europar sare mota berri bat abian jartzea, aditurik onenak biltzen dituen eta garrantzi handiko eremuetan aurrera egitea bultzatzen duena, EB osoan arreta onkologikoa kalitate handiagokoa eta bidezkoagoa izateko asmoz.



2024ko azaroa -
 2028ko azaroa



40,5M €



Zazpi ezagutza-sare sortzeak funtsezko zerbitzuak eskuratzeko aukera emango die erakundeei Europako komunitate onkologikoarentzat funtsezkoak diren zerbitzuak eskuratzeko, hala nola gida klinikoak, kalitate-irizpideak, osasun- eta ekonomia-ereduak, hezkuntza-laguntza, ikerketa bultzatzea eta pazienteei eta politikei babesa ematea. Gainera, 2021eko Minbiziaren Aurkako Europako Planaren gomendioak egikaritzen dituzte sare horiek.



Estatuko
 koordinatzailea



Euskadin lantalde bat eratzea, minbizi konplexuaren eta pronostiko txarraren, biziraupenaren eta minbiziaren duten nerabe eta gazte-helduen eremuetan, ezagutzan aurrera egiteko, laguntza-ereduak hobetzeko eta etengabeko ikerketa eta prestakuntza sustatzeko.

Joint Action on Cardiovascular Diseases and Diabetes


Gaixotasun kardiobaskularren eta diabetesaren karga murriztu eta prebenitzeko eta osasuna sustatzeko eta ekimenak abian jartzea.



2023ko azaroa
- 2027ko urria



53M €



Esku-hartzeen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea, osasun-arloko emaitzetan eta esku-hartzeetan ekitatea sustatzea.



Bazkidea



Gaixotasun kardiobaskularrak dituzten gazteen eta nerabeen alfabetatzea hobetzeko programa bat ko-diseinatzea, osagai anitzeko esku-hartze komunitario korporatibo baten bidez. Halaber, bihotz-gutxiegitasunaren Osakidetzaren arreta-ibilbidea berrikusi eta optimizatzea, balioan oinarrituta.

Joint Action for Implementing of best practices and research results on Healthy Lifestyles for the health promotion and prevention of non-communicable diseases and risk factors


Komunitate mailan esku-hartzeak sustatzea, osasuna sustatzeko eta gaixotasun ez-kutsakorrek prebenitzeko.



2022ko abendua -
2025eko abendua



3,7M €



Prozesu parte-hartzaile bat abian jartzea, komunitateko eragile garrantzitsuen eta herritarren parte-hartzearekin, ingurune osasungarriak sustatzeko eta herritarren ongizatea hobetzeko ekimenak abian jartzeko.



Bazkidea



Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzarekin batera, "Grünau moves" jardunbide egokia Erandion inplementatzea eta egokitzea, haurren gehiegizko pisua eta obesitatea prebenitzeko eta udalerrian bizimodu osasungarriak sustatzeko.



Joint Action
Antimicrobial Resistance and
Healthcare-Associated Infections

Joint Action Antimicrobial Resistance and Healthcare-Associated Infections 2



Europar Batasunaren politika komunak aplikatzea, antimikrobianoekiko erresistentziaren aurka borrokatzeko eta osasun-arretarekin lotutako infekzioak kontrolatzeko.



2024ko urtarrila -
2028ko abendua



50M €



One Health estrategia eta ekintza-plan nazionalak bultzatzea; gizakiei, animaliei eta ingurumenei antimikrobianoak administratzea; infekzioak prebenitzeko eta kontrolatzeko ekintzak; gizakien, animalien eta ingurumenaren zaintza-sistemak; antimikrobianoak eskuratzea; mikrobioen aurkako erresistentziari buruz sentsibilizatzea.



Bazkidea



Proiektuaren aurrerapena, egindako jarduerak eta proiektuan zehar lortutako emaitzak ebaluatzeko adierazleak definitzen eta monitorizatzen buru izatea.



Joint Action on Extended EHR@EU Data Space for Primary Use



Historia Kliniko Elektronikoak partekatzeko Europako Formatua inplementatzeko gidak, espezifikazio teknikoak eta ebaluatzeko esparrua prestatzea, osasun-datuen lehen mailako erabilerari dagokionez.



2023ko azaroa -
2026ko apirila



4M €



Osasun-datuen interoperabilitateari eta elkartrukeari buruzko ezagutza, osasun-datu elektronikoen lehen mailako erabilera, eta Osasun Datuen Europako Espazioaren araudi berria.



Bazkidea



Mugaz gaidiko telemedikuntza-zerbitzuetan osasun-datuak eskuragarri izateko eskakizunak eta erabilera-kasuak definitzea.



Joint Action on Mental Health Together



Osasun mentaleko arazoek karga murriztea, bai maila pertsonalean, bai biztanlerian.



2024ko iraila -
2027ko iraila



6M €



Osasun mentaleko politikak hobetzea Europan, "Osasun mentala politika guztietan" txertatzeko, tresna digitalak eta praktika berritzaileak sustatuta.



Estatuko koordinatzailea



Osasun mentaleko arreta-ibilbide bat definitzea Estatu Kideetan, tresna digitalak eta esperientzia bizi izan duten pertsonen ikuspegi txertatzea, komunitatean, lanean eta hezkuntzan sustapen- eta prebentzio-gidaritzarekin batera.

Joint Action on the New EU Cancer Screening Scheme Implementation



Europa mailan minbizia bahetzeko estrategia berriak inplementatzea.



2024ko ekaina -
2028ko maiatza



38,8M €



Europar minbiziaren baheketa-sistemak indartzea, osasun-arloko desberdintasunak murriztea eta berrikuntza sustatzea osasun-arloko emaitzak hobetzeko.



Bazkidea



Prostatoko minbiziaren baheketa egiteko ikuspegi berriak inplementatzea helburu duen gidaritza abiaraztea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko baheketa-programak optimizatzeko osasunean eta osasun-teknologiaren ebaluazioan oinarritutako ikuspegiak garatzea.

4.1.2. Aurkeztutako Europako proposamenak

	IZENA	HELBURUA	BIOSISTEMAKEN EGINKIZUNA	FINANTZIAZIO-PROGRAMA
SERENITY	Supportive and Technology-Based Approach for Caregivers Providing Palliative Care	Gaixotasun aurreratuak dituzten paziente helduen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea, zaintzaileen karga murriztea zainketa digital integratuen bidez.	Europako koordinatzailea	
TALISMAN	Tackling Hypertension And Obesity Using Implementation Research For Integrated Patient Centered Care	Hipertentsioa eta obesitatea tratatzea, inplementazio-ikerketaren bidez, pazientea ardatz duen arreta integratua lortzeko.	Europako koordinatzailea	
HEART-ID	Heart Health for People With Intellectual Disabilities	Desgaitasun intelektuala duten pertsonen bihotz-hodietako gaixotasunen prebentzioarako, diagnostikorako eta tratamendurako aukera zuzena dutela bermatzea.	Bazkide	
ImmPaThic	Immersive training systems to nurture empathic and ethical skills among health and care professionals working with vulnerable patients	Enpatia eta etika indartzeko murgiltze-prestakuntzako sistemak garatzea gaixo zaurgarriei arreta ematen dieten osasun-arloko profesionalentzat.	Bazkide	
PHM in COPC	Population Health Management in community-oriented primary care: lessons learned from implementation in different countries	Hainbat herrialdeetako lehen mailako arreta komunitarioan Population Health Management inplementatzearen ondoriozko irakaspenak aztertzea eta partekatzea.	Bazkide	
UNIQUE	ERC - AI-powered self-management for depression in routine care	Depresioa autokudeatzeko aplikazio bat garatzea, sintomak kudeatzen, birgaixotzea prebenitzen eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.	-	


2025 urterako prestatzen ari garen Europako proposamenak

	IZENA	HELBURUA	BIOSISTEMAKEN EGINKIZUNA	FINANTZIAZIO-PROGRAMA
JA PRISM	Prevention-Oriented Rights-Based Approach to Support Mental Health in Vulnerable Population Groups	Eskubideetan oinarritutako ikuspegi integrala sustatzea, populazio zaugarrietan osasun mentaleko arazoak prebenitzeko.	Europako koordinatzailea	
HOPE4Kids	Holistic Oncological Palliative Care for Europe's Kids	Ikuspegi holistikoak garatzea minbizia duten haurren zainketa aringarriak hobetzeko.	Bazkide	



4.1.3 Estatuko proiektuak

Osasun Ekintza Estrategikoko Proiektuak - Karlos III.a Osasun Institutua




4.1.4 Karlos III.a Osasun Institutura aurkeztutako proposamenak

Lehen Mailako Arretako indarguneek (irisgarritasuna, longitudinalitatea eta integritasuna) hilkortasunean eta saihestu daitezkeen ospitaleratzeetan duten eragina. ALIME-AP azterketa.

Bularreko edo kolon-ondeteko minbizia duten pazienteetan esku-hartze multimodalaren ebaluazioa, bizi-kalitatea hobetzeko.

Developing the sepsisA health guardian: implementation of an innovative AI-based sepsis early warning system.



4.1.5. Eusko Jaurlaritzaren proiektuak (ZTBP 2030)

OSASUNeko IKERKETA- ETA GARAPEN-PROIEKTUAK (KOORDINAZIOA)

- 1 Emaizta txarren arrisku-faktoreak bularreko minbiziaren kohorte batean
- 2 Balioan oinarritutako arretan balioaren ekuazioa argitzen
- 3 Bilakaera txarra larrialdietan artatutako 65 urtetik gorako pazienteetan
- 4 Antibiotikoen erabilerarekin lotutako kontrako gertaeren alarmak monitorizatzea
- 5 Lehen Mailako Arretako indarguneek hilkortasunean eta saihestu daitezkeen ospitaleratzeetan duten eragina
- 6 Populazioaren araberako arrisku-estratifikazioa: paziente pluripatologikoaren arretarako arreta-ibilbide korporatiboaren eraginkortasunaren ebaluazioa Osakidetzan



OSASUNeko IKERKETA- ETA GARAPEN-PROIEKTUAK (LANKIDETZA)

- 7 Cohorte IMPaCT Euskadi: Zientzia eta teknologiarik lotutako doitasun-medikuntzako azpiegitura
- 8 COVID-19aren eragina haurren, nerabeen eta gazteen osasun mentalean
- 9 Anorexia nerbioari aurre egiteko estrategia terapeutikoak
- 10 Biriketako funtzioaren, asmaren eta BGBKaren eragina helduetan
- 11 Doitasun-medikuntzako eta populazio-oinarriko azpiegitura
- 12 Lehen mailako arretako preskripzio farmakologikoa murrizteko implementazio-estrategien ebaluazio konparatiboa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZAREN EKINTZA OSAGARRIAK

13

Euskadin I+G+b-ko CRIS sistema bat diseinatzea eta martxan jartzeko laguntza ematea. Ekintza Osagarria. Koordinatzailea: Biogipuzkoa

14

BOSD – BASQUE OPEN SCIENCE – OPEN DATA. Euskadiko Ikerketa Sanitarioko Open Science Sistemaren eredu, nazioarteko gomendioen arabera. Koordinatzailea: Biogipuzkoa



EITB MARATOIA PROIEKTUAK

15

Esklerosi anizkoitzaren epidemiologia Barrualde-Galdakaoko ESIan

16

Erreserba kognitiboak bilakaeran, kognizioak, desgaitasunean eta bizi-kalitatean duen inpaktua esklerosi anizkoitza duten pazienteen kohorte batean



4.1.6. Eusko Jaurlaritzaren proposamenak

OSASUNeko IKERKETA- ETA GARAPEN- PROIEKTUKO PROPOSAMENAK (KOORDINAZIOA)

1

Lehen Mailako Arretako indarguneek (irisgarritasuna, longitudinalizatea eta integritasuna) hilkortasunean eta saihestu daitezkeen ospitaleratzeetan duten eragina. ALIME-AP azterketa.

2

Medikazioaren desegokitasun potentziala fibrilazio aurikularra eta tratamendu antitrombotikoa duten 65 urtetik gorako pazienteetan STOPPSTART v3 irizpideak.

3

Populazioaren araberako arrisku-estratifikazioa: paziente pluripatologikoaren arreta-ibilbide korporatiboaren eraginkortasunaren ebaluazioa Osakidetzan.

4

Bularreko edo kolon-ondesteko minbizia duten pazienteetan esku-hartze multimodalaren ebaluazioa, bizi-kalitatea hobetzeko.

5

SepsisIA: AAn oinarritutako sepsiaren alerta goiztiarreko sistema berritzaile baten implementazioa eta kanpo-baliozkotzea.

6

Zainketa aringarrien beharra garaiz detektatzea, adimen artifizialeko tekniken bidez.

OSASUNeko IKERKETA- ETA GARAPEN- PROIEKTUKO PROPOSAMENAK (LANKIDETZA)



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

7

Cohorte Euskadi (EUSKohorte): Doitasun-medikuntzako eta populazio-oinarriko azpiegitura Koordinatzailea: Bioaraba.

8

Patologia kroniko konplexuak (ICP) eta bizitza mugatzen edo mehatxatzen duen patologia (AHP) dituzten paziente pediatrikoak sistematikoki identifikatzea, Euskal Osasun Zerbitzuan (Osakidetza) arreta koordinatu eta integrala emateko subsidiarioak direnak. Koordinatzailea: Biogipuzkoa

9

Audit eta Feedback-en oinarritutako inplementazio-estrategien ebaluazio konparatiboa, Lehen Mailako Arretan 65 urtetik gorako pertsonetan balio gutxiko preskripzio farmakologikoa murrizteko. Koordinatzailea: Biobizkaia.

10

Intubazio-eredu prediktibo zail baten kanpo-baliozkotzea, ikasketa automatikoan oinarritua. Koordinatzailea: Biobizkaia.

11

PVV-PROM-AF Proiektua. GIBa duten pazienteen jarraipenean pazienteak emandako emaitzak kontuan hartzea. Koordinatzailea: Biobizkaia.

12

BGBKren kontsulta monografikoko pazienteen nutrizio-mailaren alterazioekin lotutako faktoreak. Koordinatzailea: Biobizkaia.

13

Bihotz-gutxiegitasuna duten gaixoen arretan eraginkortasuna hobetzea, balioari bideratutako ibilbide korporatiboa ezartzean. Koordinatzailea: Biogipuzkoa.

2024 URTEKO EITB MARATOIARA AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

- 14 Bularreko minbiza duten pazienteei gastronomia pertsonalizatua gomendatzeko sistema bat garatzea.
- 15 Bularreko edo kolon-ondesteko minbiza duten pazienteetan esku-hartze multimodalaren ebaluazioa, bizi-kalitatea hobetzeko.
- 16 Koloneko eta ondesteko minbizitik bizirik atera diren pazienteen osasun-egoera eta bizi-kalitatea ebaluatzea, kirurgiaren ondorengo 12 urteko jarraipenean.

eitb

MARATOIARA

4.2. Sareak eta lankidetzak

4.2.1. Kronikotasunaren, Lehen Mailako Arretaren eta Osasunaren Sustapenaren Ikerketa Sarean (RICAPPS) parte hartzea



Lehen mailako arretan, kronikotasunean eta osasunaren sustapenean osasun-emaitzetara bideratutako sareko ikerketa sustatzea.



26
IKERKETA-
TALDE



9
TALDE KLINIKO
ELKARTU



12 AUTONOMIA
ERKIDEGOREN
PARTAIDETZA

BIOSISTEMAK INSTITUTUAK GIDATUTAKO IKERKETA-TALDEAK:

BARRUALDE-GALDAKAO ESIA

- Ikertzaile nagusia: Susana García
- Ikerketa-ildoak: Lehen mailako arreta, kronikotasuna eta osasunaren sustapena.

BILBO-BASURTU ESIA

- Ikertzaile nagusia: Amaia Bilbao
- Ikerketa-ildoak: Arretaren kalitatea hobetzea eta gaixotasun kronikoak prebenitzea.

4.2.2 Balioan oinarritutako arretaren ikas-komunitateak



Value-based healthcare for Outcomes In breast and lung Cancer in Europe



Partzuergoa: Europako 8 ospitale



Osakidetza

Ezkerralde-Enkarterri Gurutzeta ESla
Donostialdeko ESla



Koordinazio zientifikoa



Bularreko minbizia eta biriketako minbizia duten pazienteentzako balio-emaizak neurtzean oinarritutako esku-hartzearen eraginkortasuna aztertzea, haien ahalduntzea sustatzeko, erabaki partekatuak hartzea sustatzeko eta profesionalaren eta pazientearen arteko komunikazioa hobetzeko; ereduko prozesuek kostu klinikoetan duten eragina ebaluatzea, eta emaitza horien neurketa ohiko praktika klinikoan sistematikoki txertatzea.



Balioan oinarritutako medikuntza hesteetako gaixotasun inflamatorioari aplikatuta



Partzuergoa: Estatuko 11 ospitale



Osakidetza

Barrualde-Galdakao ESla
Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESla
Bilbao-Basurto ESla



Koordinazioa eta inplementazio-metodologia



